

Arabako Foru Aldundiak % 19,36 eta % 12,5 handituko du mendekotasuna dela eta ematen dituen LPPE eta FZPE prestazio ekonomikoen zenbatekoak

III. mailan laguntzaile pertsonalak kontratatzeke prestazioa eta egungo lanbide arteko gutxieneko soldata parekatu ditu

Familia ingurunean laguntza izateko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsona gehienek emakume bat dute zaintzaile nagusi

Gasteiz, 2024ko uztailaren 30a. Foru Gobernu Kontseiluak onespena eman dio gaur goizean mendekotasun mailaren bat duten Arabako pertsonen autonomia pertsonala hobetzeko bi prestazio ekonomikoren zenbatekoak eguneratzeari.

Hala, Gizarte Politiken Sailak proposatuta, ontzat eman da mendekotasuna duten eta laguntzaile pertsonalak kontratatu nahi dituzten pertsonak jasotzen duten LPPE izeneko laguntzaren gehieneko zenbatekoak % 19,36 handitzea. Era horretan, III. mailako mendekotasuna duten onuradunen LPPEaren gehieneko zenbatekoa egungo lanbide arteko gutxieneko soldatarekin (LGS) parekatuko da. Gehikuntza hori I. eta II. mailakoei ere aplikatuko zaie, era proportzionalan. Era berean, Aldundiak % 12,5 handitu ditu FZPEaren gehieneko zenbatekoak, hau da, zaintzaile ez-profesionalei ematen zaien laguntza, mendekotasuna duen pertsonaren senideak, gehienetan.

Bi prestazio ekonomikoen zenbatekoen igoera horri aurre egiteko, Gizarte Politiken Sailak 1.250.000 euroko kreditu gehigarria izango du. 2024ko indarreko aurrekontuko neurri osagarriari buruzko uztailaren 10eko 10/2024 Foru Araua onesteko Foru Gobernuko taldeek (EAJ eta PSE) eta Alderdi Popularrak erdietsitako akordioaren ondorio da zenbatekoen igoeren onspena. Aldez aurretik, Arabako Batzar Nagusiek babesa eman zieten EH Bilduk eta PPK, hurrenez hurren, LPPE eta FZPE prestazioak handitzeko egindako proposamenei.

Zenbateko berriak irailean jarriko dira indarrean eta, LPPEaren kasuan, uztailaren 1era arteko atzeraeragina izango dute. Hiru mendekotasun mailei aplikatuko zaizkie modu proportzionalan, bai gaur egun prestazioa jasotzen duten pertsonari, bai onuradun berriari. Arabako Lurralde Historikoan hiru urtez jarraian erroldatuta egon direla egiaztatzen duten hartzaileei aplikatuko zaie gehieneko zenbatekoen eguneratzea.

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) hilerik ematen den laguntza bat da, laguntzaile pertsonal profesionalaren figura kontratatzeak dakartzen gastuak ordaintzen laguntzeko. Mendekotasun egoeran dagoen adineko pertsonaren edo desgaitasuna duen pertsonaren gidaritzapean, haren eguneroko bizitzako oinarritzko zeregin jakin batzuk egiten ditu laguntzaileak, eta behar izanez gero, mendekotasun egoeran dagoen pertsonari laguntzen dio aisialdian, parte hartze sozialean eta enpleguan eta formakuntzan.

Prestazio horren helburua da mendekotasuna duen pertsonari haren ohiko eta familiako ingurunean ahalik eta denbora gehien jarraitzen laguntzea, hala nahi izanez gero. Horretarako, bizitza autonomoagoa izan dezan laguntzen zaio, haren egoeraren eta premien arabera, eta, aldi berean, zaintzaren sektorean enplegua sortzea sustatzen da. 2023an, 690 pertsonak jaso zuten LPPEa Araban.

LPPEaren hileko gehieneko zenbatekoak, hauek izango dira, eurotan:

	EGUNGO GEHIENeko ZENBATEKOA	GEHIKUNTZA	HEMENDIK AURRERAKO GEHIENeko ZENBATEKOA
1. MAILA	399	+77,24	476,24
2. MAILA	747,25	+144,66	891,91
3. MAILA	950,07	+183,93	1.134

Familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa

Foru Gobernu Kontseiluak, halaber, familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren (FZPE) zenbatekoa % 12,5 handitzea onetsi du. Hileko laguntza horren helburua da zaintzaile nagusi eta ohikoa den gizarte eta familia sareko pertsona batek mendekotasun egoeran dagoen pertsonari ematen dion arretak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzea.

2023. urtean, 4.374 pertsonak jaso zuten FZPEa. Nabarmendu behar da zaintzaileen % 71,9 emakumeak direla eta gehienetan senideak izaten direla.

LPPEaren hileko gehieneko zenbatekoak, hauek izango dira, eurotan:

	EGUNGO GEHIENeko ZENBATEKOA	GEHIKUNTZA	HEMENDIK AURRERAKO GEHIENeko ZENBATEKOA
1. MAILA	185	+23,13	208,13
2. MAILA	329	+41,13	370,13
3. MAILA	482	+60,25	542,25

Prentsa Oharra **Nota de Prensa**

Foru Aldundiak Landako Parke Probintzialaren ondoan 288 plazako aparkaleku bat eraikitzeko obrak lizitatu ditu

Gobernu Kontseiluak onespena eman die Landako Parke Probintzialaren ondoan aparkaleku bat eta autokarabanentzako zona bat eraikitzeko obren proiektuari eta haiek kontratatzeari.

Etorkizuneko disuasio aparkalekua 9.826 metro koadroko lurzati batean kokatuko da, A-3014 errepidearen ondoan. Azalera horretan 288 plaza egongo dira: 25 autokarabanentzat, 253 ibilgailu estandarrentzat eta 8 mugikortasun urria duten pertsonentzat Datorren urtean martxan jartzea aurreikusten da.

Obra hori gauzatuta, Landako Parke Probintzian aparkalekuen sistema eta modua berrantolatu ahalko da, ibilgailuak ahal dela disuasio aparkalekuan aparkatu daitezzen. Hartara, eta martxan jarri ondoren, presioa murriztu ahal izango da urtegiaren babes zonatik hurbilen dauden "aparkalekuetan".

Jarduera honek, hondartza zonari zerbitzua emateaz gain, zuzenean komunikatuko du urtegiko oinezkoen eta bizikleten ibilbidearekin, eta antolamendurako eta aparkatzeko espazio egoki bat jarriko du.

Jarduketa hau gauzatzea miloi bat euroan baino zertxobait gehiagoan balioetsita dago (1.001.635,17, BEZa barne) eta 2024ko eta 2025eko ekitaldietan gauzatuko da.

Proiektu hau Landako eta Garaioko barrualdeko hondartzei buruzko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren esparruren barruan dago, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren finantzaketa du.

Foru Aldundiak 600.000 euro baino gehiago inbertituko ditu Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko

Zeharbideetan eta istripu ugariko errepide tartetan esku hartuko du

Arabako Foru Aldundiaren Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak 602.000 euro baino gehiago inbertituko ditu Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko. Esku hartzeko programa horrek istripu ugari izaten diren hiri zeharbideak eta tartekak izango ditu lehentasun.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du bide segurtasuneko prebentzio eta arintze neurrien kontratuaren adjudikazioa, zeina esku hartze horien oinarria baita, 602.530 euroan eta bederatzi hilabeteko gauzatze epearekin. Jarduerak aurtengo bigarren seihilekoan eta 2025eko lehenengo hilabeteetan egingo dira.

Programa horren kontura finantzaturako proiektuek abiapuntutzat dituzte udalek, administrazio batzarrek eta arabarrek egindako proposamenak, foru erakundeko bide segurtasuneko teknikarien txostenak eta Errepideen Foru Sarean 2019-2023 aldian izandako istripu tasaren azterlanaren ondorioak.

Kontratu horren bidez, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak jarduketak egingo ditu Arabako hainbat herritako zeharbideetan eta hiri barruko bide tartetan ibilgailuen abiadura murrizteko. Jarduketan helburua seinaleztapen horizontala eta bertikala indartzea eta trafikoa lasaitzeko neurriak hartzea izango da, kasuen arabera.

Horrez gain, besteak beste, hondatuta dauden euspen sistemak ordeztuko dituzte, motorzaleentzat egokitutako hesi berriak jarriko dituzte arriskuko zonetan, eta tarte jakin batzuetan txirrindulariak ibili daitezkeela adierazteko seinale gehiago jarriko dituzte.

Esku hartze programak kontuan edukiko ditu Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak Arabako errepideetako istripuez aldizka egiten duen azterlanaren ondorioak. Azterlan horrek istripu ugariko bide tartekak zehazten ditu, eta haietan segurtasuna hobetzeko ekintzak planteatzen ditu. Haiek ere kontratu honen bidez finantzaturako dira.

Azkenik, segurtasun programak honako hauek ere jasotzen ditu: faunari buruzko seinale bereziak jartzea ehiza espezieekin istripu ugari izaten diren bide tartetan, eta fauna uxatu eta erakartzen duten produktuak erabiltzea animaliak bidegurutze seguruetara bideratzeko (fauna pasabideak), eta, horrela haiek oraingo bidegurutzeetan ez sartzeko.

Foru Aldundiak 540.000 euro bideratuko ditu landa eremuko toki erakundeentzat eta bertako biztanleentzat, ohiko etxebizitzak birgaitzeko

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 9an hasiko da

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onespena eman dio 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako 1.500 biztanletik beherako toki erakundeetan etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzen deialdi berri bati. Laguntza deialdi honen helburua da toki erakundeetan biztanleak mantentzea eta landa eremuan arkitektura kalitateko, erosotasuneko, energia efizientziako, irisgarritasuneko, konektibitateko eta etxeko bizi kalitateko estandar berriak ezartzea.

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak proposatuta, 2024-2025 biurtekorako deialdi honek 540.000 euroko zuzkidura izango du, eta birgaitze ekintzak finantzatuko ditu, bai toki erakunde horientzat, bai bertan bizi diren pertsona fisikoentzat.

Zehazki, deialdi honen xede izango dira kontserbaziorako, kalitatea, irisgarritasuna eta jasangarritasuna hobetzeko –energia efizientzia barne– esku hartze eta birgaitze obrak gauzatzea xede duten jarduketak, haiekin lotutako askotariko gastuekin batera.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea 2024ko irailaren 9an hasiko da. Lehia libre bidez emango dira dirulaguntzak. Hau da, egin ahala ebatziko dira eskaerak, harik eta funtsak agortu arte.

Pertsona fisikoen kasuan, etxebizitza horretan erroldatuta eta bertan bizi beharko dute dirulaguntzaren helburua bete dela justifikatzen den egunean.

Toki erakundeen kasuan, birgaitutako etxebizitzak alokairurako, bizitoki zuzkidurarako, genero indarkeriako egoeran dauden pertsonen ostatu emateko eta gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko erabili beharko dira.

Ekimen hau Arabako Foru Aldundiaren politiken parte da, zeinek Arabako herrietan bizitza proiektuak bermatzea baitute helburu. Helburu horrekin, bizilagunei laguntzen zaie etxebizitza politika publikoak baliatu ahal izan ditzaten, haien idiosinkrasiari uko egin gabe, eta Arabako landa eremuko eraikuntzaren balio arkitektonikoa berreskuratu dadin, XXI. mendean eskatu beharreko kalitate eta erosotasun estandarrak bermatuz.

Foru Aldundiak 450.000 euro bideratuko ditu lurraldeko landa bideak mantendu eta kontserbatzera

Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen Erregistroan sartutako landa bideak mantentzeko lanak egiteko zerbitzu kontratua adjudikatzea onetsi du, 450.000 euroko guztirako zenbatekoan, BEZa barne.

Hiru sorta adjudikatu dira; lehenengoa Ismael Andrés SA enpresarentzat izan da, eta hainbat jarduketa egingo ditu Arabako Errioxan. Bigarren sorta Guinaldura SLrentzat da, eta Gasteizen eta Arabako Mendialdean egingo ditu lanak. Hirugarrenak, berriz, Aiaran jasotzen ditu ekintzak, eta Obras Públicas Onaindia SA enpresak egingo ditu.

"Gauzazko laguntza" da, hau da, landa bideak mantentzeko zerbitzu bat ematea, Nekazaritza Sailaren kontura, erakunde titularrari funtzio hori egiteko dirulaguntza eman beharrean. Horrenbestez, Arabako Foru Aldundia arduratuko da toki erakundeen eta udalen titulartasuneko landa bideak mantentzeko eta kontserbatzeko lanez, eta foru erakundeak % 100ean finantzatuko ditu.

Aurreikusitako jarduerak lurraldeko hiru eremutan gauzatuko dira. Lehenengoa, Moreda, Oion eta Iekorako udalek osatzen dute; bigarrena, Gasteizko hegoaldeko eta ekialdeko toki erakundeek eta Arraia-Maeztuk, eta, hirugarrena, Okondoko eta Laudioko udalek eta Aiarako udalerriko tokiko erakundeek.

Foru Aldundiak Martiodako Faunaren Suspertegiaren kudeaketa adjudikatu du

Gobernu Kontseiluak, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak eskatuta, onetsi du "Martiodako Faunaren Suspertegiaren kudeaketa integrala" Aialur SL enpresari adjudikatzea, 348.214,77 euroan, BEZa barne. Gauzatzeko epea urtebetekoa da, eta beste lau urtez luza daiteke, urtez urte.

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko Natura Ondarearen Zerbitzuak naturaguneen, espezie mehatxatuen eta habitaten gaineko eskumena du. Helburu horren barruan sartzen da biodibertsitatea "in situ" babestea, fauna eta florako espezie mehatxatuak, haien habitatak eta gune babestuak kudeatuz, bai eta "ex situ" ere, besteak beste itxian haztearen eta zauritutako edo ahuldutako animaliak errehabilitatzearen bidez. Martiodako Faunaren Suspertegiak azken kudeaketa eginkizun hori betetzen du bere ibilbidea 1975ean hasi zenetik, eta aitzindaria da estatuan.

Suspertegiaren zereginak funtsezko lau prozesutan zehazten dira: animalien bilketa, zaintza eta errehabilitazioa; biodibertsitateari buruzko kudeaketa eta ikerketa zientifikoko programen babesa; ingurumenari buruzko hezkuntza eta dibulgazio lanak, eta fauna aleen heriotzaren arrazoiei buruzko ikerketak.

Suspertegia pixkanaka profesionalizatzen ari denez, eta nola dibulgazio eta kontzientziazio kanpainak ere egin diren, hango lan bolumena nabarmen handitu da. Suspertegiratutako ale gehiago ditu, eta arreta handiagoa ematen zaie han bertan, lehen kanpora ateratzen ziren egitekoak egiten baitira orain, hala nola X izpien miaketak, sendaketa eta konponketa ebakuntzak, kirurgia eta nekropsiak, besteak beste. Hori dela eta, lizitazio berriak abereen arretarako eta zaintzarako pertsonen kopurua indartu behar du, eta haien hornidura handitu.

Basa faunaren suspertegiak animalia horien aldi baterako bizilekua izaten dira erabat errehabilitatu arte. Haietan, beharrezkoak dituzten zaintzak jasotzen dituzte, beren habitat naturalera itzuli ahal izateko arrakastarako ahalik eta probabilitate handienekin; izan ere, % 70 inguruko berreskuratze ehunekoak lortu dira.

Suspertegian 780 animalia sartzen dira urtean batez beste. Era berean, Suspertegiak fauna kudeatzeko eta ikertzeko proiektuak gauzatzen laguntzen du; besteak beste, bisoi europarraren LIFE proiektuak eta LIFEren osteko fasean dagoen Bonelli arranoarena.

Suspertegian basa faunaren mota guztietako espezieak jasotzen dira, eta ez da etxeko animaliarik onartzen, apoarmatu exotikoak izan ezik, eta, Lan Zuzendaritzak erabakita, espezie jakin batzuk baldintza berezietan eta salbuespenekoetan.

Azken urteotan, sartu diren espezieetatik gehienak hegaztiak izan dira, eta haietatik, batez ere, harrapariak. Suspertegiratzeko zio nagusiak arrazoi naturalengatik izaten dira, txitak habietatik erortzeagatik, traumatismoengatik edo bestelakoengatik, eta arrazoi ez-naturalen artean, harrapatzeak eta espezieen gatibutasuna nabarmentzen dira, baina baita tiroak, elektrokuzioak, talkak, intoxikazioa, eta abar ere.

Foru Aldundiak garbiguneetatik datozen hondakinak garraiatzeko eta kudeatzeko zerbitzua adjudikatu du

Gobernu Kontseiluak, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak eskatuta, onespena eman dio FCC AMBITO SA enpresari adjudikatzeari "Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen instalazioetatik datozen hondakin arriskutsuak garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua", 300.150,95 euroan, BEZa barne.

Gauzatzeko epea bi urtekoa da, eta beste hiru urtez luza daiteke, urtez urte, bost urteko gehieneko epea gaintitu gabe.

Zerbitzu horiek emateak berekin dakar hondakin desberdinak jasotzea. Kontratu horren xede dira arriskutsuak izenekoak, eta nabarmentzekoak dira beren kantitateagatik kutsatutako plastikozko ontziak eta pinturak.

Zerbitzu horien esparruan, Arabako Foru Aldundiak hondakinen kudeaketa egokia bermatu behar du, hondakinen hierarkiako goiko eskaletan lan egitea eskatzen duten tratamendu aukerei lehentasuna emanez. Gainera, barnean hartzen du zentroen eta kudeaketa instalazioen arteko garraioa, bai eta dagokion dokumentu euskarria eta zerbitzuaren jarraipena ere.

Foru erakundeak puntu berde mugikorra eta garbiguneen foru sarea kudeatzen ditu. Azken hori Amurrion, Oionen, Dulantzin, Tuestan, Langraiz Okan eta Santikurutze Kanpezun dauden sei instalaziok osatzen dute, eta haietako hondakinak ibilgailuen parkean pilatzen dira.

Garbiguneak erreferentzia puntuak dira. Herritarrek askotariko hondakinak uzten dituzte, eta honako hauek nabarmentzen dira, utzitako kantitateagatik: hondakin ez-arriskutsuak, etxeetan etxeko konponketa lan txikiek sortutako hondakin geldoak eta tamaina handikoak.

Foru Aldundiak 190.000 euroko dirulaguntza eman du, udalerrietan eta kuadrillean euskararen bidez sozializatzeko 124 programa garatzeko

Foru Gobernu Kontseiluak lurraldeko 38 udalerriri eta 5 kuadrillari 190.000 euroko dirulaguntza ematea onetsi du gaur, euskararen bidez sozializatzeko programak gara ditzaten. Sozializazioa pertsonen arteko elkarreragina da, betiere hizkuntza komunikatzeko bidetzat hartuta. Arabako Foru Aldundiak 124 proiektu lagunduko ditu diruz, guztira, lurralde historiko osoan.

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren deialdiaren helburu nagusia da gizarte programa eta jardueri laguntzak ematea, euskal hiztunak eta horien sareak aktibatze eta Araban euskaraz bizitzeko baldintzak izan daitezen aukerak sortzen jarraitzeko. Ekintzak aisialdiarekin eta kirolarekin, administrazioarekin, sozioekonomiarekin, euskarazko komunikabideekin eta kultura edo gazteriarekin lotuta egon daitezke.

Diruz lagundutako 124 programak hainbat eratakoak izango dira: haurrentzako tailerrak, udalekuak eta bertsoak, euskararen erabilera eta transmisioa sustatzeko jolas jarduerak, euskaltegien jardura bera eta beste kultura proiektu batzuk.

Honako udal hauen proiektuek jasoko dituzte dirulaguntzak: Asparrena, Kanpezu, Lantaron, Legutio, Arraia-Maeztu, Urizaharra, Iruña Oka, Arratzua-Ubarrundia, Burgelu, Donemiliaga, Berantevilla, Bernedo, Zigoitia, Barrundia, Urkabustaiz, Zuia, Harana, Kuartango, Erriberagoitia, Argantzón, Erriberabeitia, Artziniega, Dulantzi, Agurain, Zalduondo, Okondo, Trebiñuko Konderria, Gaubea, Aramaio, Amurrio, Aiara, Laudio, Iruraiz-Gauna, Lagran, Oion, Guardia, Zambrana eta Armiñon.

Arabako Lautadako, Gorbeialdeko, Arabako Mendialdeko, Guardia-Arabako Errioxako eta Aiarako kuadrillek abian jarritako programek ere jasoko dituzte foru aldundiaren laguntzak.

Foru Aldundiak 177.360 euro inbertituko ditu Bernedoko gazteluan

Berdintasun, Euskara eta Gobernantzaren mende dauden Arabako 2024ko partaidetzako aurrekontuen ondorioz, Kultura eta Kirol Sailaren kontrolpean eta kudeaketapean bultzatzen da

Arabako Foru Aldundiak 177.360 euro inbertituko ditu Bernedoko gaztelua birgaitzeko eta balioesteko Mendialdeko Kuadrillan. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak kudeatzen dituen Arabako partaidetzako aurrekontuen ondorioz, Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren kontrolpean eta kudeaketapean bultzatzen da.

Ekainaren 21eko 370/2022 Erabakiaren bidez, parte hartzeko eredu berri baten beharraren berri eman zen, partaidetzako aurrekontuena, Araba Helburu prozesuaren barruan. Helburua da arabarrek zuzenean parte hartzea lurraldearen eta kuadrillen beharrak eta lehentasunak ezartzerakoan. Asmoa da Foru Aldundiaren urteko aurrekontuan gizartearen babes handiena duten beharrak sartzeko eta lortutako konpromisoen jarraipena egitea. Gainera, hausnarketa aktiboa eta elkartasuna sustatzen laguntzen dute. Herri bozketa bidez, administrazioak gauzatuko dituen proposamenak hautatzen dira, parte hartu nahi duenak aurkeztutako proposamen guztien artetik.

2023an, Arabako Foru Aldundiak Arabako 2024ko partaidetzako aurrekontuen deialdia egin zuen. Ekitaldi honetako aurrekontuan sartzeko hautatu ziren proposamenen artean dago Bernedoko gaztelua birgaitzeko eta balioesteko proiektua, 177.360,00 eurokoa, Mendialdeko Kuadrillan.

Proiektu hori Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bultzatuko du, haren eginkizunen artean baitago Arabako Lurralde Historikoko Ondare Arkeologiko eta Paleontologikoaren mantentzea eta kontrola kudeatzea. Izan ere, planteatutako jarduketaren espezifikotasuna eta Bernedoko Udalaren giza baliabideen eta baliabide teknikoaren mugak kontuan hartuta, dirulaguntza gauzatan kudeatuko da, eta, beraz, esku hartzeak Museo eta Arkeologia Zerbitzuak garatuko ditu, beharrezkoak diren kontratuen kudeaketa eta jarduera guztien ikuskerapean bere gain hartuz.

Bernedoko Gaztelua Bernedoko herrigune historikoaren zona arkeologikoan sartuta dago, eta kultura ondasun gisa dago inskribatuta Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean Monumentu Multzo kategoriarekin (1996ko martxoaren 21eko Agindua, 71. EHAAn argitaratua, 1996ko apirilaren 12an). Gaur egun, gazteluaren aurriak herrigunetik bereizita daudela dirudi, mendiaren hegoaldean dagoen muino baten gailurrean, baina Erdi Aroan hiribilduaren harresi esparruaren parte izan zen, eta elementu garrantzitsuena eta esanguratsuena izan zen. Lotura horren ondorioz, hiri izaera du oraindik ere kokatuta dagoen azpilurzatiak (7. poligonoko 503 lurzatiaren C azpilurzatia), zeina Bernedoko Udalaren jabetzakoa baita.

Planteatutako esku hartzea

1. Proiekturako segurtasun plana, hondarren kokapena dela-eta beharrezkoak diren segurtasun neurriak jarrita.
2. Gazteluaren goiko aldeko eta inguruko landaredia garbitzea.
3. Jasotze topografiko geoerreferentziatua, bai hasierako egoerarena, bai amaierarena.

4. Gazteluaren goiko plataformaren indusketa arkeologiko osoa eta zati bat hobiaren inguruan.
5. Egiturak sendotzeko arkitektura proiektu balioetsia idaztea.
6. Aurreikusitako sendotze lanak egitea, sarbideak hobetzea eta segurtasun neurriak instalatzea bisitarako.
7. Balioa emateko eta informazio osagarria emateko lanak gauzatzea.

Foru Aldundiak % 2 handituko du Administrazio Orokorreko langileen eta kargu publikoen nomina

Administrazio Orokorreko funtzionarioen, behin-behineko langileen eta kargu publikoen nomina, 2023ko ekitaldiko soldatarekin alderatuta, % 2 handitzea onetsi du gaur Foru Gobernu Kontseiluak. Soldata handitzeak oinarrizko ordainsariei eta osagarriei eragiten die, eta abuztuko nominetan aplikatuko da, 2024ko urtarriletik aurrerako eraginez.

% 2ko igoera hori ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak xedatutakoa betetzeko aplikatuko da. Dekretu horren bidez luzatu egiten dira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri, eta premiazko neurriak hartzen dira arlo fiskal, energetiko eta sozialean.